


HIZKUNTZA INDIGENAK AMA LURRA ZAINTZEN



Gida didaktikoa





SARRERA

Gida didaktiko hau *Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen* liburuarekin eta izen bereko erakusketarekin dago lotuta, batarekin zein bestearekin. Gida didaktiko hau proposamen bat da gaia landu nahi duen pertsonarentzat (irakasle, irakasle-talde, ikasle e.a.). Irakasleak erreferentziatzat hartu dezake, eta proposamen hau moldatu, sakondu, arindu edo aldatu.

Gida didaktiko honetan proposatzen diren jarduerak 14 urtetik gorako ikasleentzat pentsatuta bildu dira. Helburuetako bat hizkuntza eta natura aniztasunari buruzko gogoeta eragitea da, ahal delarik taldean hausnartzeko: **zergatik hainbeste hizkuntza daude galbidean? Zergatik horrenbeste natur ondasun hondatzen ari dira?**

Jarduerak hiru ataletan antolatu ditugu:

1. Erakusketa edo liburuarekin zuzenean lotura dutenak.
2. Ikastaldearen hizkuntza aniztasunaren azterketa lantzekoak.
3. Munduko natura eta hizkuntza aniztasunaren arakaketa bultzatzekoak.






1. Erakusketa edo liburuarekin zuzenean lotura dutenak

1.1. Begiratu ondoko mapa eta identifika ezazu zure herrialdearen kokagunea.

Ohiko lekuan ikusten duzu? Munduko mapa horiek ikusita, munduari begiratzeko modu bat baino gehiago dagoela esango zenuke? Bildu taldean zuen iritziak eta eztabaidatu horietaz.



1.2. Mapan ageri diren koloreek Meso eta Hego Amerikan hitz egiten diren hizkuntza indigenen eremuak adierazten dituzte.

Duela hainbat mende, mapa hori koloretsuago zen, baina pixkanaka-pixkanaka eremu horiek murrizten joan dira, eta sarri hizkuntzak desagertzen. Hausnartu ikastaldean ondorengo galderen erantzunak:

- > Bazenekien Meso eta Hego Amerikan hainbeste hizkuntza hitz egiten zirenik? Zeintzuk egiten zaizkizu ezagunak?
- > Ezagutzen duzu horietako hizkuntzen bat hitz egiten duen hiztunik?
- > Aurretik aipatu bezala, hizkuntza indigenak desagertzen ari dira. Hori mundu guztian gertatzen ari den fenomeno da. Zure ustez zerk eragiten du hizkuntza baten desagertzea?
- > Ezagutzen al duzu hizkuntzaren desagertze kasurik?



*Hizkuntza aniztasuna
Meso eta Hego Amerikan.
(Uranga et al., 2007.)*







1.5. Ikusi ezazue QR kodearekin loturik dagoen animazioa, ondorengo testua irakurri eta saia zaitezte beheko galderei erantzuten.



BASOA SUTAN

Diotenez, basoa sutan desegiten ari zen, eta animalia guztiak ere sutan galtzeko arriskuan zeuden, baina ez zuten erreakzionatzen, hondamendiari begira zeuden. Kolibri txikiak, oso kezkatuak, eta sugarrei aurre egin, errekara joan eta bere moko txikiarekin ur pixka bat hartu eta sutara botatzen hasi zen. Jaguarrek hori ikustean esan zuen:

— Zertan zabilta kolibri txiki?

Honek arnasa hartu eta erantzun zion:

— Sua itzali nahian nabil.

Jaguarrek esan zion ez zuela lortuko, eta kolibriak erantzun zion:

— Ni nire partea egiten ari naiz, denok berdin egingo bagenu, bakoitzak berea egingo balu, sua itzaltzea lortuko genuke.

Brasilgo ipuin herrikoia

> Zein esanahi dauka istorioak?

> Zer garrantzi daukate kolibri txikiek?

> Mitoa euskararen egoerara ekarri gero, zer izango litzakete sua, eta zer kolibria eta ur tantak?



1.6. Liburuxkan eta erakusketan agertzen diren testuak entzuteko aukera dago dagokion QR kodea eskaneatuz gero. Hauta ezazu testu bat eta entzun ezazu dagokion audioa.

> Ezagutzen duzun beste hizkuntzaren baten antza hartzen diozu?

> Zein hots errepikatzen dira gehien? Idatziko zenituzke gehien errepikatzen diren hots horietako batzuk?

1.7. Ariketa:

Aukera ezazu herri indigena bat eta osa ezazu beheko taula:

Herriaren izena	
Hizkuntzaren izena	
Herriaren populazioa	
Hiztun kopurua	
Hizkuntzaren egoera	
Agurra hizkuntzan	
Eskerrak hizkuntzan	
Marrazkian, kultura sinbolizatze elementua(k)	





1.8. Zein elementurekin sinbolizatuko zenituzke euskara eta euskal kultura? Zein lotura dugu guk naturarekin? Saia zaitetze marrazki baten bidez adierazten.

.....

.....



1.9. Hausnartu taldean esaldi hauen esanahia:

> *Hizkuntzak aurrekaririk ez duen abiaduran ari dira desagertzen, eta haiekin hizkuntza horietan bilturiko jakituria eta baliabideak. Munduko 6.000 hizkuntzen erdia galtzeko mehatxupean dago, gehienak hizkuntza indigenak.*

(Posey, 1999; Uranga, 2013).

> *Gakoa ez da zernolako lurra uzten diegun gure seme-alabei, baizik eta zer nolako seme-alabak uzten dizkiogun gure lurrari.*

(Bonifacio Iturbide, nawat herria, 2013).

> *Mundua aldatu baino, mundu askok kabida duten mundua eraiki behar da.*

(Mexikoko zapatisten mugimendua).

2. Ikastaldearen hizkuntza aniztasunaren azterketa lantzekoak

2.1. Saiatu zaitezte mapamundi batean zuek, zuen etxeak eta zuen eskolatik kanpoko lagunek ondo edo zertxobait dakizkiten hizkuntzak dagokien estatutan jartzen.

2.2. Hizkuntza horietatik zuen ustez zeintzuk daude galbidean edo galtzeko arriskuan?

.....

.....

.....

UNESCOren sailkapena erabilita, zein da hizkuntza horien egoera?:
kaltebera, arriskua, arrisku larria, arrisku kritikoa eta galdua?

.....

.....

.....





Alderatu zuen iritzia UNESCOren webgune honetan diotenaz, *Atlas of the word's language in danger*:

<https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000187026>

2.3. Aipatutako hizkuntza horietan *egun on* eta *eskerrik asko* nola esaten den idatzi arbelean edo orri batean.

2.4. Badakizue zenbat hizkuntza hitz egiten diren Euskal Herrian?

- ☐ 10 baino gutxiago
- ☐ 50 inguru
- ☐ 100 baino gehiago

**2.5. Zeintzuk dira Euskal Herriko hizkuntza ofizialak?
Zein leku du hizkuntza bakoitzak zuen eguneroko bizimoduan?**






3. Munduko natura eta hizkuntza aniztasunaren arakaketa bultzatzekoak

3.1. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira munduan? Zenbat hizkuntza hitz egiten dira kontinente bakoitzean? Bilaketa interneten egin daiteke.

3.2. Aztertu munduko hizkuntzen banaketa eta aniztasun biologikoa adierazten duen mapa. Mapan koloreek landare aniztasuna adierazten dute, kolore argiak aniztasun txikia eta ilunak aniztasun handia adierazten dute. Bestalde puntuek hizkuntzak adierazten dituzte. Hausnarketa egin eta ikastaldearen iritziak biltzea proposatzen da.



Munduko aniztasun biokulturala (Maffi, 2001)

3.3. Hizkuntza aniztasuna eta natura aniztasuna gizakiontzat aberastasuna direla begitantzen zaizu? Zergatik? Ikastaldearen iritziak biltzea proposatzen da eta ikastaldean eztabaidatzea.

3.4. Gure inguruan landararik edo animaliarik galtzeko arriskuan dagoela badakizu? Ikastaldearen iritziak biltzea proposatzen da.





3.5. Ezagutzen al duzu ekimenik galtzen ari den bizidun espezieren bat sendotu edo berreskura dadin? Adierazi labur eta bildu ikastaldearen jakituria.

3.6. Ezaguna da landare, zuhaitz eta bizidunen galera munduan zehar. Baina hizkuntza eta kultura asko ere galtzen ari dira. Zergatik uste duzu ari direla hizkuntza asko eta asko galtzen? Ikastaldearen iritziak biltzea proposatzen da.

3.7. Zer gertatzen da hizkuntza bat desagertzen denean? Zer galtzen da hizkuntzarekin batera?

3.8. Ezagutzen al duzu ekimenik galtzen ari den hizkuntzaren bat (edo batzuk) sendotu edo berreskura dadin? Adierazi labur eta bildu ikastaldearen jakituria.

3.9. Bi, hiru edo lau hizkuntza jakitea, zergatik da positiboa zuretzat? Ikastaldearen iritziak biltzea proposatzen da.

3.10. Zergatik dira hizkuntza indigenak desagertzeko arrisku handiena dutenak? Zein da gertatzen den prozesua zuen ustez? Ikastaldearen iritziak bildu eta eztabaidatu.





EGILEAK



LAGUNTZAILEAK



Egileak dira gida didaktiko honetan dagoen informazioaren hautaketaren eta aurkezpenaren erantzule, bai eta horretan adierazten diren iritzien erantzule ere. Iritzi horiek ez dute zertan UNESCOrenekin bat etorri, eta ez dute erakundea konprometitzen.

